



DENOK GARA

Google

XABIER ETXANIZ ROJO

n a r r a t i b a •

erein

DENOK GARA GOOGLE

*Narratiba, 116*

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.*

*1. argitalpena: 2019ko martxoan*

Azalaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

© Xabier Etxaniz Rojo

© EREIN. Donostia 2019

ISBN: 978-84-9109-445-6

L. G.: SS-303/2019

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

e-mail: [erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: [itxaropena@itxaropena.net](mailto:itxaropena@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

Xabier Etxaniz Rojo

# DENOK GARA GOOGLE



erein

*Gure aitari, in memoriam*

“Egia bilatzen duenak ondo merezi  
du huraxe aurkitzearen zigorra”.

Santiago RUSIÑOL

# OIANKO

*Ez gaitun negar egiteko jaioak, badakin.*

*Marraztu ditinagu burezur azulak  
hire patioan,  
tatuatu ditinat heriotzak  
nire bularraldean.*

*Autobus honek gutxitu fisikoak zamazkin,  
bati besoa falta zaion,  
beste bati ezkerreko hanka,  
eta neuri... neuri, bihotza.*

*Nahi al dun nirekin oheratu, Lorelei?*

Kasiopea Bilbon

LORELEI

## UZTAILA

Gmail-en idatzi duen posta elektronikoa ia bukatuta dagoen arren, Iñigoren hatzak ezin du bidaltzeko botoia sakatu. Keinu erraza da, inondik ere. *Enter* botoia sakatu eta akabo istorioa. Alabaina, Iñigok *Supr* botoirako joera handiagoa dauka, behin eta berriro ezabatu baitu posta elektronikoa honen bukaerarako pentsatu duen galdera. Dagoeneko zazpi aldiz idatzi du eta dagoeneko zazpi aldiz ezabatu du.

*Enter* botoia sakatu nahiko luke, baina *Supr* sakatzen du beti, eta galdera desagertzen da pantailatik.

Atzera ere idatzi du ezabatutako galdera, ia pentsatu gabe, automata bat balitz bezala. Asteak daramatza galdera bera bu-ruan, jira eta bira, eta handik aterarazi nahi du.

*Enter* botoia sakatu eta dena atzeraezintasunaren zulo bel-tzean sartuko da istant bakar batean.

Hatzak, ordea, botoiaren gainean geldirik dirau, zentime-tro eskas batera, geldirik, egingo duenak ondorioak ekarriko di-tuela dakien nerabearen hatzaren antzera. Izozturik, katuaren gainean jarririk izerdi tantei ere beldur dien suizidarena bezala.

Botoia sakatu eta kitto.

Botoia sakatuko du.

Alabaina, atzera ere ezabatu du galdera.

Zortzigarren aldiz.

## APIRILA

- Hamen askoz hoba.
- Bai, zalantzarik gabe, Oianko.
- Eta zertan gengoan?
- Zirimiriaz.
- Zirimiriaren desagerpenaz, egia.
- Jada ez du euririk egiten lehen bezala.
- Egia. Hamen Bilbon asteak daroaguz ganorazko zaparrada bota barik.
- Zaparradak gustatzen zaizkizu?
- Lantzean behin. Aixea garbitzen dabe.
- Bilboko zara?
- Ez naz Bilboko baina Bilbon bizi naz.
- Ba ni Donostian bizi naiz eta Donostiakoa naiz.
- Donostiarra ala ñoñostiarra?
- Ñoñostiarra, noski!
- Mantekauak jaten dabezen horietakoa?
- Mantekauak??
- Mantekaua = izozkia!!
- Aaaa, jajajajajajaj, bai, noski! Noñostiar peto-petoa!  
Izozki-jale-Kontxazale-paseari-hombre-tuporaki perfektua!
- Hombre-tuporaki???
- Bai, Kontxako paseoan ezagun bat ikustean... Hombre!  
Tú por aquí!!
- Jajajajajajajaj.
- Jajajajajajajaj.



–Hombre-tuporaki!! Ze ona!  
 –;-))  
 –Ederto, laster liburutegira. Filosofia ikasten.  
 –Filosofia ikastera?  
 –Bai.  
 –Oiankooooo!  
 –Zer?  
 –Hemezortzi urte baino gehiago dituzu, ezta?  
 –Bai, zelan ez, hemezortzi urte aspaldi bete nenduzan.  
 –Eskerrak!  
 –Bigarren karrera ikasten nao. Ona da beti zure burua janztea, ezta?  
 –Bai, baina ez dakit ez ote den alferrik prestatzea, enpresarioak nolakoak diren ikusita. Langileak baino gehiago eskla-boak nahiago dituzte. Laster eskubide guztiak kenduko dizkiete langileei.  
 –Arrazoia dekozu.  
 –Beraiengatik balitz, ez bajarik, ez prestaziorik, ez indem-nizaziorik... deskuiduan laster ezta oporraldirik ere.  
 –Oporrak? uff... urrun dao abuztu.  
 –Hartu lehenago.  
 –Ezin dot. Gureko neuke baina ezin dot. Abuztun oporrak hartzeak gauza on bakarra deko: Bilboko Aste Nagusian itze-lezko parrandak egin daikedazela.  
 –Zertan egiten duzu lan, ba?  
 Oianko Atxa, última vez hoy a las 16:21.  
 –*Oianko!!! Nora joan zara?*

\* \* \*

–Barkatu. Lagun batek bihar beregaz aperitiboa hartzen lotzeko deitu deust.

–Barkatuta zaude. Aperitiboa? Marianittoa? Bermuta, olibak eta hori guztia?

–Bai, zapaturoko ohitura dogu. Ummm... olibak itzel gus-tetan jataz.

–Niri, ez bermuta eta ez olibak.

–Iñigo.

–Zer, Oianko?

–Oso gustura nao zurekin berbetan.

–Baita ni ere.

–Baina... sentitzen dot...

–“Baina... sentitzen dot” horrek despedida baten itxura du.

–Baina... sentitzen dot, itzi behar zaitut.

–Ezzzzz.

–Baiiiiiii.

–Ikusten!! Despedida!! Itxura osoa zeukan!! Bakarrik falta zi-tzaizun “gureak ez du funtzionatzen” esatea.

–Gureak eztau funtzionetan.

–Ikusten!!!

–Jajajajajja.

–jajajajajja.

–Bai, agur bat da Iñigo, jajajajja.

–Oianko?

–Zer?

–Gure artekoa mozten ari zara?

–Bai.

–Ezzzzzzz.

–Jajajajajajaj.  
–Baina zergatik??? Buaaaaaaaa...  
–Liburutegira joan behar nazelako...  
–Nire burua leihotik behera botako dut uzten banauzu!!!  
–Jajajajajajaj.  
–Jajajajaj.  
–Hala, hombre-tuporaki, banoie. Gabean jarraituko dogu...  
–Aio, Oianko. Asko ikasi.  
–Aioooooooooo.  
Oianko Atxa, última vez hoy a las 16:59.

\* \* \*

Jada ez du garrantzi handirik nola iritsi diren puntu komun honetara. Inñigok berak, euskal idazle onenetakoa izanik, asma lezake edozein abiapuntu hala nahi izatera, eta erraz asko bideratuko luke berak nahi duen tokira iristeko. Azken batean, horixe baita ofizio handiko idazle ororen lana, kontakizunak buztingile baten trebeziaz moldatzea buruan dituen gezurrak hezur-haragizko ager daitezen paperaren gainean. Eta Inñigok, besteak beste, ofizio handia dauka.

Esan dezagun, beraz, Inñigok eta Oiankok noizbait eman zizkiotela elkarki telefono zenbakiak, oso era naturalean, baiki, baina baita, intimitatea kolokan jartzeko bideak hain ugariak diren garaiotan, oso era burugabeen ere.

Apuntatu: Oianko Atxa, 654923714.

Esan dezagun noizbait erabaki zutela jendez beteriko eta trakets antzean funtzionatzen zuen *chat* hari bizkarra ematea, eta

Whatsapparen berehalakotasunari zabaldu zizkiotela besoak, parez pare zabaldu ere.

Ez deitu inoiz telefonoz, bakarrik hamen berba egiteko.

Esan dezagun noizbait hasi zirela hitz eta pitz, ganorarik gabeko kontuez txutxu-mutxuka, apirileko arratsaldeak hitz-as-pertuz betetzen gaua azkarrago hel zekien.

Lasai, Oianko, ez dizut inoiz deituko.

Eta esan dezagun, zergatik ez, biek ala biek eskertu zituztela deskubritutako lurralde berriaren onurak.

Argazkiena, esaterako.

Lehenengo argazkia garagardo botila batena izan zen, ez oso ondo fokuratutakoa. Iñigok botila bat ardo beltz zabaltzera joango zela iragarri zuen, eta, itzuli zenerako, hantxe, bere Samsung Note 3ko pantaila erraldoian, aurkitu zuen Oianko edaten ari zen garagardoaren irudia. Keler bat zen, terraza bateko mahai biribil batean jarrita, inolako glamourrik ez zuen botila soil bat. Izotz tanta irristakorik ez, beraz, Oiankok bidalitako argazkian. Ez emakume lerden eta pinpirinik, ezta mutil gazte bizar-txukunik ere botila horren alboan. Ondo fokuratuta balego sikiera! Botila soil bat zen, iragarkietan eskaintzen dituzten irudietatik oso urruna, eta, hala ere, Iñigori interesgarria iruditu zitzaiona.

Zergatik? Zerk eman zion atentzinoa Iñigori lehenengo argazki hartan? Balirudike honako hau unerik aproposena argazki horrek gordetzen duen misterioa argitzeko baina hori sobera aurreratzea litzateke, eta badakigu, Iñigori berari hamaika elkarrizketatan irakurri eta entzun baitiogu, istorio on ooren sekretua informazioa tantaz tanta ematean datzala.

Iñigo Oiankok Whatsappez bidalitako Keler botila bati begira utzi dugu, beraz. Ez da jasotzen duen lehenengo argazkia, noski, baina bai Oiankok bidali dion lehenengoa. Bitan pentsatu gabe, hortxe hasi da Iñigo, milaka milioi megapixel dituen arren oso gutxitan erabili duen telefonoko argazki botiaren bila. Ez du berehalakoan aurkituko, noski. Eta behin aurkitu ostean ez du edozein argazki bidaliko, ez, Iñigo gauzak taxuz egitearen aldekoa baita. Ez, ez du balio edozein txokotan ateratako argazkia, ezta edozein kopatan ateratakoa ere. Apenas ezagutzen duen Whatsapparen beste aldean dagoen emakumea, baina gauzak, baita ezdeusenak ere, ganoraz egiten dira edo ez dira egiten. Eta gauzak horrela, zer gutxiago natura hil dotore bat baino.

Zortzi minutu geroago bidali dio mahats-mordo baten ondoan dagoen kopa baten argazkia, non atzean Viña Imperial botila bat ikusten den.

Bai, geu kontakizun honen narratzaileak izanik ere, ez dizuegu, lagun estimatuok, arrazoirik kenduko. Are: bat gatoz zuekin guztiokin. Iñigo komunikatzaile bikaina da, baina, zorritzarrez, oraindik ez da komunikatzeko era modernoetan berehalakotasunak duen garrantziaz jabetu. Izan ere, zortzi minutu pasatu ostean, argazkia bidali duenerako, Oiankok jada bukatu du bere garagardoa eta jada ez baitago on-line.

Ikasiko du, ikasiko duenez.

\* \* \*

Etxeko terrazan, Iñigok ardo kopari azken tragoxka eman dio. Ondarretatik ehun metrora dagoenez, Iñigok Donostiako

badia osoa ikusten du, baina orain bere arreta Samsung Note 3ko pantailak bereganatu du osoki. Ez, ez diogu kargu hartuko. Kontxako hondartza paregabea da baina hamaika aldiz ikusi ostean galtzen du paregabekotasuna eta azken urteotan Iñigok arratsalde askotxo eman ditu terraza horretan bertan eserita. Eta telefonoan gaur lehenengo aldiz ikusi duen argazki bat dauka, ezagutzen ez duen emakume batek bidalia.

Bada alderik, gero!

Argazkiari begira, zerbaitek eman dio atentzioa, baina Iñigok oraindik ez daki zer den. Eta hatzaz gora eta behera mugitzen du pantaila Oiankorekin egun hauetan izandako elkarrizketak behin eta berriro errepatatuz. Zertaz hitz egin dute? Ezertaz ez. Eguraldiaz. Bilboko jaietan egin beharreko parrandez. Liburutegira filosofia ikastera joan beharraz. Hemezortzi urte baino gehiago dituzu, ezta? Bilbotarkeriaz eta ñoñostiarrismoaz. Ezertaz ez. Whatsapp ez da igogailu moderno bat besterik. Zertaz hitz egin dute? Laneko oporrak nahitaez abuztuan hartu behar izateaz. Bermutez eta olibez. Bai, zelan ez, hemezortzi urte aspaldi bete nenduzan. Enpresariak ezarri nahi dituzten lan-baldintza onartezinez. Zertan lan egiten duzu, Oianko? Baina ez, Iñigok elkarrizketa behin eta berriro errepatatu arren, Oiankok ez dio galderari erantzunik eman. “Ez zuen irakurriko”, pentsatu du Iñigok. Baina hainbat minutu geroago, Iñigok barnean daraman istorio asmatzaileak atximur egin dio besoan. “Ez zuen irakurriko ala ez du erantzun nahi izan?”. Ez daki. Badaki, ordea, galdera horrek beste galdera bat utziko diola opari, eta opari horrek beste galdera ikur bat ekarriko diola segidan, eta ohartzera,

kale itsu batean egongo dela *matrioxka* baten gorputz zatiei eutsi ezinik. Ez, ez zuen irakurriko eta kitto. Gaia hortxe utziko duela erabaki du eta azken elkarrizketaren azken bi mezuetara iritsi da atzera ere. Bi argazkietara.

Natura hil bat. Keler soil bat terraza batean.

Botila ez, baina, atzeko eraikina bai. Atzeko eraikina ondo fokuratuta dago. Nahigabean ondo fokuratuta, esan gabe doa, Oiankoren helburua bestelakoa baitzen. Gehienez ere, solaskidea keinu azkar batez harritzeko asmoa izango zuen. Zu joan zaitez ardo bila, neu ase naiz garagardo honekin. Gehienez ere, bere trebezia erakusteko saiakera bat baino ez zen. Begira ezazu zein ona naizen tramankulu hau maneiatzen. Edo, zergatik ez, solasaldian azkar eta eraginkortasunez erantzuten badakiela erakusteko modu bat baino ez zen, jakina baita nolakotasun hori pertsona argiei dagokiela. Aizu, jakin ezazu adi nagoela, iaioa naiz honetan, eta gustura nago zurekin hizketan. Bai, gehienez ere, horrelako zerbait zebilkion Oiankori burutik telefonoko argazki kamera dantzan jartzea erabaki duenean. Asmo sotil eta ezdeusak, denak soka motzekoak. Oiankok ezin imajinatuko zuen atzeko eraikin horrek emango ziola atentzioa solaskideari.

Eraikin modernoa, balkoirik gabea, oro kristal eta oro ispilu, oro lerro eta angelu zuzen.

Iberdrolako dorrea?

Ez, ez da Iberdrolako dorrea. Inígok Bilbo ezagutzen du eta badaki Iberdrolako dorrea hiruki-formako prisma berezi samar bat dela, ez dela karratua. Eta hor, Oiankok bidalitako argazkiaren atzeko aldean agertzen den eraikina karratua da. Ez, ez

da Iberdrolako dorrea, baina dorre bat da. Eta Iñigok badaki noizbait dorre hori bera ikusi duela, bere burmuinean baduela argazkian dakusan horren antzeko irudiren bat gordeta. Non baina? *Argia* aldizkarian? Iragarkiren batean? Interneten? Iñigok begirada iltzatu du Donostiako zerumuga gero eta ilunagoan, han erantzuna topatuko duelakoan, baina alferrik. Ez daki non ikusi duen baina badaki ezagutzen duela eraikin hori. Eta, erlojua begiratu eta kalkulu azkar bat egin du: oraindik ordu erdi falta da Moskun gaueko bederatziak izateko. Ordu erdi gutxienez izango du. Eta jarraian ordenagailura jo du aro moderno hauetan horrelako egoeratan egin daitekeen gauza bakarra egite aldera, ardo kopa hutsik esku batean eta telefonoa bestean.

Delfosen orakulari galdetuko dio.

\* \* \*

Isozaki!

Horra Iñigori atentzioa eman dion eraikinaren izena. Isozaki dorrea. Zehatza goak izate aldera, eskuinaldeko dorrea, bere bikia ez baita Oiankok bidalitako argazki gaizki fokuratutakoan agertzen. Erraz topatu du. Oso erraz. Deskuiduan batere meriturik egin gabe topatu ere. “Torre” eta “Bilbao” hitzak Google-aren laukitxoan idatzi ditu eta hortxe agertu da, Iberdrolako dorreaz hitz egiten zuten orrialde guztiak amaitu ostean. Edo-nork egiteko modukoa iruditu zaio Iñigori.

Alabaina, Iñigo ez da sekula gauzak erraz egitearen aldekoa izan, eta Oiankoren terrazatik ikusten den eraikina zein den jakiteak jakin-mina baretu beharrean areagotu egin dio.



Helduleku bat dela pentsatu du. Abiapuntu bat. Edo puntu bat, hala nahiago baduzue. Puntu soil bat. Horrela esanda ez du ematen etxafuegoak botatzen hasteko moduko hasiera, baina ez da gutxi puntutxo hori erabiltzen jakinez gero.

Eta Iñigok, ardoari tragoxkatxo bat eman ostean, berehala ikusi du puntutxo horri atarramentua ateratzeko modua.

Googlera jo du atzera, baina oraingoan Google maps-en gainean klikatu du eta hango laukitxoan idatzi ditu lehen erabiltako gakoak: “Torre” eta “Bilbao”. Oraingoan “Isozaki” idatzi du bidea laburtze aldera. Pantailan mapa bat agertu da. “Gimnasio metropolitan Bilbao Isozaki” dio mapan iltzatutako txintxetak eta haraino eraman du, saguaren geziaren laguntzaz, maparen beheko aldean agertzen den *gizontxo horia*. Saguaren botoia askatu eta bi dimentsioko mapa hiru dimentsioko errealtate bihurtu da ziztuan. Errealitate hormatu bat, baikei, baina errealtate azken batean. Iñigo Txan magoa izan balitz, *artxila murtxila* egingo zukeen oihu, hain baita egindakoa eta lortutako emaitza magiaren antzeko. Baina Iñigo ez da Txan magoa, eta XXI. mendeko magiak ez du jada hitz gakorik behar gauzak ikuslearen begien aurretik desager daitezen.

Ezta ager daitezen ere.

Auto beltz bat, “Bilbao garbi”ko furgoneta txiki eta berde bat, horma gris bat eta emakume gazte bat telefonoari so, horra dimentsio aldaketak ekarri dizkion irudiak. Non daude baina, Isozaki dorreak? Atzera ere 360 graduko itzulia egin du, ezkerretara lehenik eta eskuinetara gero, non dagoen jakin gabe. Badaki Uribitarte kalean dagoela, hori baita pantailan agertzen den izena, baina ez du aurkitu bila zebilena harik eta

begirada zerurantz zuzendu duen arte. Zerura begiratu eta hortxe agertu dira bi dorreen ertz kristalezkoak.

Hor zaudete, beraz.

Bai, hor daude. Eta une honetan, *gizontxo horia*, Iñigoren *alma mater* birtuala, bi dorre haien azpiko pasabidean dago. Oiankorengana hurbiltzen ari delako sentsazioak sagua azkarrago mugitzera bultzatzen du Iñigo, eta, nola jakin gabe, ihesbide baten bila dabil orain, eta, nola jakin gabe, urduritasun puntu bat jarri zaio bularrean, urduritasun puntu bat urdailaren ahoan, bihotza azkartu dion puntu ziztrin bat, arrazoirik gabe ere esutzen duena. Bai, ez dizuegu kontrakorik esango, zentzugabea da bihotza azkartzea ezagutu ere ezagutzen ez duen izaki birtual batengatik, bere profilean ez haragirik eta hezurrik ere ez duen gauzaki batengatik. Bihotza azkartzea zergatik eta eguzki-lore zabal batengatik, horixe baita Oiankoren Whatsappeko profilean agertzen den irudia. Zentzugabea guztiz eta osoki, baina horren aurrean ez dugu guk ezer esango. Izan ere, inor ez dago irrazionaltasunetik salbuetsita, ezta Euskadi Saria bitan irabazi dutenak ere. Eta, gauzak horrela, Iñigok sagua alde batetik bestera mugitzea baino ez dauka, mugitu eskuinetara eta ezkerretara, pantaila batean agertzen den Bilbo horren gainean ibili era birtualean, alde batera zein bestera, bi dorre horien azpitik ateratzeko. Handik atera behar baitu urduritasun puntua lekuz alda dadin, urduritasuna lekuz alda dakion.

Handik atera behar du eguzki-lore horrengana hurbilduko bada.

Eta behin handik ateratzea lortu duenean eta saguak goiko kalerara eraman duenean, hantxe ikusi ditu Isozaki dorreak parez

pare. Arnasa hartu du sakon. Gertuegi dagoela esan dio bere buruari eta telefonoan duen argazkiak berretsi dio pentsamendua. Atzera egin du. Marrazedo kalean dagoela dio errepidean ageri den izenak, eta kalea zeharkatu du. Ercilla kalean dago orain. Atzera egin du saguaz, baina gehiegi urrundu da. Aurrerago. Ezkerretara jo eta atari baten zenbakia ikusi du. Ercilla kalea 4. Sagua gorantz eta terraza baten itxura duen balkoi bat topatu du.

Beraz, hor bizi zara, Oianko.

Atera zaitetz leihora. Atera eta egidazu agur zure terrazatik.

Bat-batean leiho bat zabaldu da Iñigoren ordenagailuan. Gaueko bederatziak dira jada Moskun.

–Droby vecher, maitea! –esan dio Skypearen beste aldeko irudiak.

\* \* \*

Oiankok bidalitako whatsapp mezuak marianito bat dakar opari. Marianito eder bat, oliba bat bermutean eta laranja ataltxo bat koparen ertzean. “Zapaturoko ohitura dekogu”, esan zion Oiankok Whatsapp bidez aurreko batean eta, egun batzuk geroago, horra gezurretan ez zebilelako frogara.

“Zergatik, baina, esan behar zidan gezurra?”, galdetu dio Iñigok bere buruari.

Galdera ona, baiki. Alabaina, Iñigok ez du bide horretatik jarraitu nahi izan eta guk, narratzaileok, zirikatzea eta xaxatzea maite dugun arren, paso egingo dugu musean bageunde bezala, aurrerago jotzeko aukera izango baitugu.

–On egin, Oianko. Itxura ederra dauka horrek. Atera ezazu beste bat niretzat –izan da Iñigok eman dion erantzuna eta zain geratu da.

Erantzunaren berehalakotasuna gorabehera, zain eta zain geratu da Iñigo, argazkiari begira.

Oianko Atxak on-line jarraitzen duela dio telefonoak, baina beste aldetik ez da mezurik iristen eta Iñigok zalantza egin du, beste zerbait erantsi ez erantsi, harik eta Oianko deskonektatu den arte.

Oianko Atxa jada ez dago on-line.

Oianko Atxa.

Lehenengo aldiz erreparatu dio abizenari. Hor egon da betidanik –betidanik esatean bizpahiru aste esan nahi baitugu–, baina ez dio kasurik egin. Atxa ez dela oso abizen ohikoa pentsatu du, eta Eneko Atxa sukaldariarena izan ezik ez datorriko beste izenik burura. Eta Oianko izena ere bitxi samarra da.

Nolatan ez da, ba, lehenago konturatu? Gai izan da emakume horren bizilekua topatzeko baina ez da gai izan izen-abizen berezi horiek toki berean bilatzeko. “Kalamitatea!”, esan dio bere buruari. Abagunea aprobe txatu eta gure protagonistari garondoan zartako txikitxo bat emateko tentazioa handia da, baiki, baina eutsiko diogu tentaldiari eta ez dugu egingo: lehen ere esana dugu inor ez dagoela irrazionaltasunetik salbuetsita, eta, gainera, Iñigok nahikoa penitentzia baitauka Googlen neskaren izena jarritakoan lortutako emaitza ikusita.

Eskasagorik nekez.

\* \* \*

Arratsalde partean, ordea, aldartea aldatu zaio Iñigori. Alaiago daude biak, pozarren. Iñigoren kasuan Oianko bera izan delako ate-joka azaldu dena. Oiankoren kasuan, berriz, bazkaldu aurretiko marianito sortari leporatu beharko diogu aurpegian zintzilik daraman irribarrea. Apenas bazkaldu dutela ezer aitortu dio Oiankok mezu baten bidez. Poteatzen ibili direla eta bazkaltzeko orduak ihes egin diela ia konturatu gabe. “Pintxo batzuk baino eztozuz jan”. Eta jarraian Iñigori galdetu dio ea bazkalduta dagoen.

Bazkaltzeko baino laster meriendatzeko ordua izango dugu, Oianko.

Eta Iñigok irribarre zabal bat bidali dio *emotikono* baten bitartez.

Arrazoia dekozu.

Eta Oiankok hartzaileari mingainaz trufa egiten dion emotikonoa bidali du.

Bai, biak umoreko daude eta, agian, horrexegatik ausartu da Iñigo lehengoan egindako bilaketa eta lortutako emaitza harrigarrien berri ematen.

Etxean zaude?

Bai.

Ercilla kalea 4. Solairuarekin zalantza dut, baina bosgarrenetik gora esango nuke.

Oiankok ez du berehalakoan erantzun oraingoan, eta, isiltasunak segundo batzuk iraun ez badu ere, ikaragarri luzea egin zaio Iñigori, zalantzak erein, hazi eta jasotzeko bezain luzea, izuari bide ematen dioten zalantzak, ez haserretzeko eta alde ez egiteko erregutzen duen izua da Iñigorena, erregu isila

Iñigoren burmuinean burrunba egiten duena, oihartzun lehorreko burrunba...

Harik eta Oiankoren erantzuna telefonoaren pantailan agertu den arte.

Zazpigarrena. Nirea zazpigarren solairua da.

Eta jarraian galdera bat.

Zelan entera zara? Harrituta itzi nozu.

Iñigok arnasa hartu du, eta irribarrea ezpainetara itzuli da, batik bat begiak zabal-zabalik dituen emotikonoa ikusi duenean. Eta burrunbak isildurik, Iñigok azaldu dio zein erraza den munduaren bazterrak arakatzea helduleku bat izanez gero, Arkimedesek arrazoia zuela euste-puntu ospetsuaz hitz egin zuenean, eta Izosaki dorreak berezi samarrak direla oharkabean pasatzeko. Iñigoren azalpena zintzoa izan da, joria xehetasunei dagokienez. Argazkia ikusi, zerbaitek atentzioa eman, eta ez zuela bakerik izan harik eta tokia aurkitu zuen arte.

Sekretu bat jakin nahi duzu, Oianko?, galdetu dio amaitutakoan.

Esan.

Googlen bilatu zaitut baina ez zaude. "Oianko Atxa" izena idatzi dut eta, aizu, ez zaude inon, ez Twitter-en, ez Google+-en, ez Flickr-en... Facebook-eko orrialde batera eraman nauen esteka bat baino ez dut aurkitu. Bertan sartutakoan ez dut gauza handirik topatu, Ezker Abertzaleko orrialde batzuetarako estekak baino ez. Ez mugimendurik, ez sarrerarik, ez argazkirik. Antza denez, Oianko Atxari ez diote ezta trafikoa isun ziztrin bakar bat ere jarri azken urte hauetan. Eta hori oso arraroa da...

Normala. Oianko Atxa esistiduten ezta. Goitizena da.

Bi pentsamenduk eta galdera batek zeharkatu dute Iñigoren burmuina alderik alde izar iheskorrek zeru beltza zeharkatzen duten abiadura berean. Pentsamenduetako batek irain egin dio, Oianko Atxa izena benetakoa ez izatearen aukera aurreikusi ez izateagatik, eta besteak gogorarazi dio honezkero izan beharko lukeela nahikoa eskarmentu jakiteko ezen ziber-espazioan dagoen guztiak ez duela zertan benetakoa izan.

Zer dela eta erabiltzen du emakume honek ezizen bat?

Alabaina, galdera egin baino lehen, beste galdera bat iritsi zaio telefonora.

Eta zuk, Iñigo, sekretu bat jakin gura dozu?

Bai.

Nik be Googlen bilatu zaitut. Eneban behar, ezaguna zare-lako eta ezagutzen zaitudalako... baina, halan da be, atzo gabea, zugaz berba egin eta gero, bilatu zintudan.

Pentsamenduak eta galderak ez dira jada hiru soilik, ezpada perseida-izar euri-jasa ederra, segundo bakar batean Iñigo guztiz blaitu duena.

Ezagutzen nauzu?, izan da hatzetara etorri zaion lehenengoa.

Zure liburuak irakurri dodazela esan gure dot.

Eta gustatu?

Zu gustatu ala zure liburuak gustatu?

Eta bat-batean konexioa eten egin da.

\* \* \*

Ondarretako terrazan, Iñigok Bernardo Atxagaren *Nevadako egunak* liburua itxi du. Gustura ari da irakurtzen, eta oso liburu

ona dela iruditzen bazaio ere, ez luke esango bikaina denik. Ez, behinik behin, bere lagunak idatzi duen bikainena. Eta, hala ere, Iñigo ziur da aurten Euskadi Saria emango diotela Bernardori. Batik bat, hogeita bost urte igaro direlako *Obabakoak* saritu zutenetik. Batik bat, tokatzen zaiolako. Berari ere halaxe eman zioten, batik bat garaia zelako. “Euskal” eta “Literatura” hitzek sortzen duten elkarketari buruz ari garelarik, Iñigok oso argi dauka –eta halaxe irakurri eta entzun ahal izan diogu hainbat elkarrizketatan– ezen, globalizatzeotan, bi hitz horietako bat baino ez dela globalizatuko, eta hitz hori ez dela “Euskal” izango. Gure “Literatura” –esan izan du Iñigok hainbatetan– gero eta estandarragoa da bere txikian, ondokoen gero eta parekoagoa, halako moldez non industria indartsu batek dituen abantailak ez ezik ajeak, arazoak eta miseriak ere bereganatzen ari baita. Aspaldi bukatu ziren militantzia literarioaren garaiak. Aspaldi bukatu ziren euskaraz idatzitako edozer argitaratzekoak. Onena beti da gehien saltzen duena. Eta “onena” epigrafearen azpian dozena bat idazle sar litezke, betiere baldin eta negozioaren eta bezero-segmentu zehatz bati onurak ekartzen dizkiotela frogatzen bada.

Kapitalismoa literaturara ekarrira.

Eta Iñigok, zeina euskal idazle gehienaren profilari men egin ez ezkeriarra –burgesen erara, betiere– eta abertzalea den, ondo deritza sistema honi, ulertzen baitu ezen gai honetan “Euskal” hitzak garatzeko duen ahalmena kate motzekoa dela. Iñigok elkarrizketetan isiltzen duena zera da, askoz errazagoa dela sistemaren onurak ikustea baldin eta sistemak piramidearen goiko erpinean jartzen bazaitu, baldin eta idazten duzun



edozer Durangoko Azokan salduenen zerrendan badago –eta edozer esatean, horixe bera esan nahi dugu, edozer, baita zaborraren mailaren langa ozta-ozta gaintitzen duten lanak ere, eta gure lagunak badu horrelakorik.

Bai, dena errazagoa da liburuaren egilearen izena Iñigo Ormazabal baldin bada.

Baina utz ditzagun kontuok, barka bekigu istorio honen protagonistetako bati eman diogun zartakoa –narratzaile orjakileak gara, baiki, baina horrek ez gaitu irizpide literariorik gabeko izaki bihurtzen– eta har dezagun atzera ere kontaktizunaren haria. Azken batean, ez dira gogoeta horiek Iñigo bere eserlekutik altzarazi dutenak.

Izan ere, Maria etorri zaio akordura.

Eta horrekin batera, erretzeko gogoa.

Edo alderantziz.

Terrazako barandaren gainean besoak jarrita, zupada luze bat eman dio piztu berri duen zigarroari. Iñigo ez da sekula oso erretzailea izan, eta, hala ere, beti eramaten du Chester pakete bat patrikan. Kafe bakoitzeko zigarro bana. Ohera joan aurretik, beste ale bat. Gehienez ere, lauzpabost zigarro egunean eta, gauzak horrela, pakete eta erdi nahikoa izan ohi du astea pasatzeko.

Edonola ere, erretzea gustatzen zaion arren, Iñigo oso urruti dago idazle oro-erretzailearen irudi betierekoarengandik.

Hego-haizeak zirimola batean bildu eta zerumugarantz eramaten du Iñigok botatako ke-bafada. Jolasarekin lotu izan du beti tabakoa. Gaztetxea baino ez zen institutu ondoko hilerrian zigarroak erretzen hasi zirenean. Jolas garaian. Hilerriko

harresia zeharkatzen zuten eta panteoi, gurutze eta lore sorta zimeldu artean hasi ziren kuadrillakoak xurgadak ematen.

Ez ziren bakarrak, ez zeukan bestelako garrantzirik, ez zen debekatutako orok sortzen zuen erakarpena besterik.

Eta jolasa zen.

Maria ere jolas artean ezagutu zuen. Hilarri hotzaren gainean jarritako ardo botila hutsak nor seinalatuko, hark egin beharko ikaskideek agindutakoa. Galdera ala prenda, heuk erabaki. Eta Mariak, urtebete zaharragoa izanik, ez zien beldurrik prendei. Eta Mariak, Iñigoren ikasgelako neskek ez bezala, ahoa zabaltzen zuen musua ematean.

Egia esadazu. Ondo ari naiz ala gaizki?

Inoiz ez ziola gezurrik esango agindu zion Mariak.

Gaizki ez, baina baduzu oraindik zer ikasi. Ez zabaldu ahoa sagar bat jan beharko bazenu bezala eta ez mugitu mingaina jогurt baten tapa zurruputzen ari bazina bezala. Etorri hona eta errepikatu. Eta besarkatu estu, ez dizut kosk egingo.

Jolasa zen, bai. Ezpain eta mingain arteko jolasak, ke klandestino arteko jolasak.

Ikasgaia ere bai.

Inoiz bukatuko zitzaien jolaserako garaia baita institutua bera ere. Maria Gasteiza joan zen Unibertsitatera. Iñigok lehenengo nobela hura idatzi zuen, bai eta arrakasta handia lortu ere. Biak ala biak ezkondu ziren, eta biak ala biak bereizi. Bizitzak nahierara urrundu zituen elkarrengandik. Maria berriro ezkondu zen. Iñigo ez, baina bikote finkoak izan zituen hainbatetan. Mariak seme bat izan zuen. Iñigok ez, baina bere zazpigarren nobela polonieraz argitaratu zuten. Bizitzak

berak hurbildu zituen elkarrengana. Bata Lasartera eraman zuen. Bestea Antiguara, Ondarreta hondartzaren parera. Mariak semea galdu zuen auto istripu zoritzarreko batean eta bolada batez desagertu zen bere baitan biltzeko. Iñigok besarkatu egin zuen eta Maria eta haren isiltasuna errespetatu zituen.

Alabaina, Mariaren semearen heriotzak egindako zauriak zabalik iraun zuen bolada alde batera utzita, bien arteko jolaserako grina ez da inoiz desagertu. Inoiz hitzartu zuten ez zirela sekula bikote izango. Inoiz hitzartu zuten ez ziotela sekula ezer eskatuko elkarri, norik bereari eutsi beharko ziola. Baina nahikoa izaten zen elkartzea musuak berriro ager zitezten. Nahikoa “zigarro bat elkarrekin?” proposamena izarapeko jolasak has zitezten. Beti hoteletan, unean uneko bikotearen ohea errespetatzekoa baita, eta beti ezkutuan, ohea errespetatzeaz gain unean uneko bikotearen bihotzari minik ez eragitea ere garrantzitsua baita.

Bai, azken hogeita hamar urteotan bizitzak nahierara mugitu ditu Maria eta Iñigo baina ez du lortu hilerri baten harrisiaren atzealdean hasi eta hoteletako izaren artean jarraipena izan zuten jolas haiek desagerraraztea.

Zigarroa itzali duenean, telefonoari egin dio so. Laster gaueko bederatziak izango dira Moskun, eta Iñigok konexiorik gabe jarraitzen du. Gauzak aldatu ezean, gaur ez zaio Skypeko leihoa zabalduko ordenagailuan. Iñigo Movistarren sare osoa erori delakoan dago, telefono linea ere ez baitabil ezta zerbitzu teknikoari laguntza eskatzeko ere.

Ez wifirik, ez esku-telefonorik, ez Internetik, ez kristorik.

Galdera bat baino ez Whatsappean.

Zu gustatu ala zure liburuak gustatu?

“Beraz, Oiankok jolastu nahi du...”, esan dio bere buruari eta jarraian hutsik dagoen botila baten irudia etorri zaio burura. Hutsik eta hilarri gris baten gainean jira eta bira.

Ba gauza bat esango dizut, Oianko... Neuk ere maite dut jolasa.

\* \* \*

–Azkenean atzo ez zenidan erantzun.

–Ez dakit zertaz berbetan dozun, Iñigo.

–Ez duzu gogoratzen?

–Ez. Gabero erreseteatu egiten naz.

–Erreseteatu?

–Bai. Badakizu, *Reset* botoia sakatu eta sistema hasieratik abiatzen da.

–Lehenengo aldia da horrelakorik entzuten dudana.

–Zuretzat opari.

–Mila esker.

–Ez horregatik.

–...

–Atzo zure izenaz galdetu nizun. Googlen bilatu zintudala esan nizunean, Oianko Atxa ez zela existitzen esan zenidan.

–Hori egia da.

–Eta ez didazu zure izena esango?

–Ez.

–Ondo iruditzen zait baina ez da justua. Zuk nirea ezagutzen duzu!

*Oianko Atxa, última vez hoy a las 18:55.*

–Oianko! Nora joan zara??

\* \* \*

–Barkatu, telefonoak jo dau eta hartu behar izan dot deia.

–Garrantzitsua zen?

–Ez, etzan garrantzitsua. Lanekoa zan. Zertan gengoan?

–Berriro erreseteatu zara?

–Ez ;-)) Hori bakarrik gabetan egiten dot.

–Zure izen faltsuaz ari ginen.

–Egia.

–Ez didazula esango esan didazu.

–Hori ere egia.

–Hor zaude, Oianko?

–Bai. Nire lana izanez gero, zu be izena gordetan ahalegin-  
duko zinake.

–Ze ba? Ospetsua zara?

–Ez zu bezain.

–Orduan ezaguna zara.

–Ez zu bezain.

–Ez didazu erantzun.

–Badakit eztotsudala erantzun.

–Eta erantzungo didazu?

*Oianko Atxa, última vez hoy a las 19:02.*

–Oianko???

\* \* \*

–Oianko! Buel tatu zara!! Zein ondo! Telefonoa berriro?  
–Ez, telefonoa ez. Pentsatu behar neban. Barkatu.  
–Badakit nor zaren!!  
–A, bai?  
–Bai.  
–Eta nor naz?  
–David Cooperfield magoaren emaztea! Hain duzu zurea  
desagertzearena...

*Oianko Atxa, última vez hoy a las 19:15.*

–Oianko?? Hori da, hori, bizioa zurea!

\* \* \*

–Barkatu. Lehengo deiak umorea aldatu deust.  
–Barkatu zuk. Txantxa bat baino ez zen.  
–Barkatuta zaude.  
–Baita zu ere. Gauza bat, atzo Googlen nire bila ibili zinela  
esan zenidan.  
–Bai.  
–Eta nire liburuak irakurri dituzula.  
–Bai.  
–Galdera bat egin nizun.  
–Eta nik beste galdera bategaz erantzun neutsun, baina  
etzendun erantzun.  
–Kontxo! Baina zu ez zinen gauero erreseatzen?  
–Bai. Informazino asko mugidutan dot beharrean. Bakarrik  
interesaten jatana gordeten dot.  
–Beraz ulertzen dut interesgarria naizela zuretzat.  
–Hori ulertu gura badozu, hori ulertu.

–Atzo telefono sare osoa erori zen, horregatik ez nizun erantzun. Ez al dituzu berriak irakurri ala?

–Bai, zeozer jakin dot. Holakoak gertatzen dira.

–Ni nire liburuez ari nintzaizun.

–Ni ez.

*Oianko Atxa, última vez hoy a las 19:24.*

–Oiankooooooooo

\* \* \*

–Barkatu. Ostabere telefonoa ta ostabere beharrekoa. Batzar batera joan behar nazala esan deuste.

–Berri txarrak?

–Bai... Baina, bueno, aukeran Gatibu gurago...

–Ez dut ulertu, Oianko.

–Normala, zu Kortaturen garaikoa zara... ;-))

–Aaaa jajajaja, bai, baina Hertzainak nahiago nuen nik ;-)

–Nik, osterantzean, ertzainak ez daukadaz gustuko...

–H-z edo H-rik gabe?

–H barik.

–Oianko...

–Zer?

–Ez didazu zure izena esango, ezta?

–Ez.

–Eman pista bat sikiera!

–Zelako pista gure dozu?

–Esan duzu nik zure lanbidea banu, ezizena erabiliko nukeela. Zer gehiago egingo nuke zure lanbidea izango banu?

–Asko berba egingo zeunke. Segurantzean, behar baino gehiago.

–Hori pista bat da?

–Bai.

–Ba, ez eman pista gehiago ;-)

–Pista ona da.

–Ez dut dudarik.

–Zuretzat, behintzat, bai. Nire etxea di-da batean topa dozu.

–Zure postontzia begiratzera joan ninteke.

–Etorri, gure badozu.

–Hori gonbidapen bat da?

–Zeuk erabaki...

*Oianko Atxa, última vez hoy a las 19:39.*

–Miss Cooperfield!! Berriro desagertu zara!!

\* \* \*

–Iñigo, eztotsut nire izena esango. Ez naz ospetsua baina bai pertsona publikoa. Interneten begiraturaz gero, informazio nahikotxu topako zeunke, nire ibilbidea, nire iragana, zer egingen dodan, zer egin nendun, zer pentsatzen dodan... Joder, gura izanez gero, baita zenbat kobretan dodan be! Dan-dana topako zeunke! Eta zuk bilatu gure badozu, bilatu, baina ez niri gauzak errazago ipinteko eskatu.

Hala, banoie, batzar bat dekot. Ondo segi.

*Oianko Atxa, última vez hoy a las 19:47.*